



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 18an

5 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

—Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldiko, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko urriaren 25ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Burlatako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1999ko urriaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.)
- II. Helburua (3. or.)
- III. Norainokoa (3. or.)
- IV. Iritzia (3. or.)
 - IV.1. Burlatako Udala (3. or.)
 - IV.2. Erakunde autonomoak (4. or.)
- V. Finantza-egoerak (4. or.)
 - V.1. Udala (5. or.)
 - V.2. Erakunde autonomoak (5. or.)
- VI. Burlatako Udalari buruzko iritziak, ondorioak eta gomendioak (9. or.)
 - VI.1. 1998ko aurrekontu-betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (9. or.)
 - VI.2. 1998ko abenduaren 31ko finantza-egoera (10. or.)
 - VI.3. Gorabeherak (12. or.)
 - VI.4. Kontratazio administratiboa (12. or.)
 - VI.5. Kudeaketari buruzko beste gomendio batzuk (13. or.)
 - VI.6. Hirigintza (15. or.)
 - VI.7. "2000 efektuari" buruzko gogoetak eta Euroari buruzko hastapenak (15. or.)

VII. Erakunde autonomoak (15. or.)

VII.1. Hilarión Eslava Musika Eskola (15. or.)

VII.2. Kirolen Udal Patronatua (16. or.)

VII.3. Jai eta Kulturarako Patronatua (17. or.)

I. eranskina. Burlatako Udalaren organigrama, 1998ko plantilla organikoaren arabera (18. or.)**II. eranskina.** Erabilitako adierazleen definizioa (19. or.)**I. SARRERA**

Burlatako Udala Iruñerrian dago, eta 15.860 biztanle ditu, 1998ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera.

Ondoko erakunde autonomoak sortu ditu bere jarduera aurrera eramateko:

- "Hilarión Eslava" Udalaren Musika Eskola
- Jai eta Kulturarako Patronatua
- Kirolen Udal Patronatua

Burlata, bestalde, Iruñerriko Mankomunitatean dago sarturik. Mankomunitate hori uraren ziklo integralaz eta hiri hondakin solidoez arduratzen da.

Burlatako Udalak beste elkarte edo patronatu batzuetan ere hartzen du parte:

- Emakumeari Laguntza emateko Eskualdeko Zerbitzua.
- Etxebizitzak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoa

Ondoko koadroan agertzen diren zenbatekoak izan dira 1998an Udalak eta haren erakunde autonomoek izandako aipagarrienak:

Entitatea	(milioi pezetatan)		
	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 98-12-31n
Udala	1.574	1.470	209
Musika Eskola	73	72	24

Kirol Patronatua	147	152	17
Kultur Patronatua	52	54	3

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legeari, Toki Ogasunak eraentzeko arauari buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzeko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta Udalaren Gastu eta Dirusarrera Aurrekontuen exekuzioa fiskalizatu dugu. Udal administrazioaren gainerakoari dagokionez, gure helburua da kanpo auditoretzako txostenak aztertzea eta horien ondorio eta datu ekonomiko nagusien laburpena egitea.

Fiskalizaturiko toki-entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutakoak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua, hirigintza-kudeaketa eta administrazio-kontratazioa arautzen duen araudia eta Nafarroako toki entitateei aplikatzekoa den gainontzeko araudia.

Txostenaren helburua honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea da:

- a) Iruñeko Udalaren 1998ko ekitaldiko aurrekontuen garapena eta exekuzioa.
- b) 1998-12-31ko ondare-egoeraren agerpena, eskuarki onarturiko kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- c) Udalaren eta haren menpeko erakundeen jarduera ekonomiko-finantzarioen legezatasun printzipioarekiko egokitasuna.
- d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomikoa 1998ko abenduaren 31n.
- e) Nafarroako Kontuen Ganbarak 1994ko ekitaldiari buruzko bere azken fiskalizazio-txostenean egindako gomendioen betetze-maila.

III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa programari jarraituz, Burlatako Udalaren (hemendik aurrera Udala) eta haren erakunde autonomoen 1998ko ekitaldia fiskalizatu du.

Udalak kontabilitate publikoaren sistema ezarri du, irailaren 21eko 271/1998 Foru Dekretuari egokitutako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorren arabera. Dekretu haren bitartez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea garatzen da aurrekontu-egiturari dagokionez.

Lana oinarritzeko, dirusarreraren eta gastuen kapitulu ekonomikoak eta ondare masak aztertu ditugu; halaber, antolamenduarekin, kontabilitatearekin eta barne kontrolarekin loturiko alderdiak ere aztertu ditugu.

Hirigintzako arloari dagokionez, planeamendua nola bete den eta haren aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila ere aztertu ditugu.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipioei eta arauari jarraituz eta, baldintzen arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz burutu dugu lana.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen antolamendua, barne kontrola, eraginkortasuna eta ekonomia hobetzeko beharrezko jotzen ditugun iruzkinak eta gomendioak bildu ditu txostenak.

Azterketa lana 1999ko ekainean egin dugu.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Egindako fiskalizazioaren esparruan, Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1998ko ekitaldiko finantza-egoerak aztertu ditugu. Finantza egoera horiek Udalaren erantzukizunez egin dira, eta laburtuta bildu ditugu txosten honen V. atalean.

Azterketa Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko arauari eta auditoretza prozedurei jarraituz egin dugu.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

IV.1. BURLATAKO UDALA

IV.1.1. 1998ko aurrekontuaren likidazioa

1998ko aurrekontuaren likidazio egoerak –erantsita jarri dugu– nahiko ongi agertzen du fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketen multzoa. Dena den, badaude zenbait aurrekontu-egozketa oker, bai arlo ekonomikoari bai denborari loturikoak, baina ez dute eragin handiegirik izan udal jardueraren emaitza orokorrean.

IV.1.2. Ondare-egoeraren azalpena 1998ko abenduaren 31n

Ibilgetua osatzen duten saldoen fidagarritasun eza eta udalaren inbentarioa eguneratu gabe izatea –1995ekoa da– oztopo zaizkigu Udalak

1998ko abenduaren 31n zuen ondare egoerari buruz iritzia emateko.

IV.1.3. Legezkotasuna

Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun printzipioaren arabera da; hala eta guztiz ere, zenbait ez-betetze antze-man ditugu kontratazio administratiboaren eta aurrekontu-kontabilitatearen arloetan; horiei buruzko hainbat iruzkin eginen ditugu txosten honetan.

IV.1.4. Egoera ekonomikoa eta finantzarioa 1998ko abenduaren 31n

Burlatako Udalaren 1998ko abenduaren 31ko finantza-egoerak honako ezaugarri hau du: epe luzeko zorraren zenbatekoa handia da -1.380 milioi pezeta- eta aurrezki garbiaren ehuneko txikia da -ehuneko 6—. Azken hori, gainera, murriztu eginen da, 1999ko ekitaldiaren bukaera aldean zenbait banku-maileguren ezaldia bukatzen delako.

IV.1.5. Kontuen Ganbara honek 1994ko ekitaldiko fiskalizazio txostenean emaniko gomendioen betetzea

Aurreko fiskalizazio txostenean Kontuen Ganbara honek emaniko gomendioak ezartzeari dagokionez, eragin bikoitza antzeman dugu:

- Alde batetik, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokor berria erabat ezartzearen ondorioz, garrantzi handiko hobekuntzak egin dira aurrekontu-kontabilitatearen arloan.

- Hala eta guztiz ere, aurrerapen gutxi ikusi dugu kudeaketa eta barne kontroleko prozesuei eta hirigintza planeamendua kudeatu eta gauzatzeari dagokienez.

IV.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

IV.2.1. Udalaren Musika Eskola

Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioak nahiko ongi agertzen du Eskolak eginiko jarduera.

Hala ere, hauxe antzeman ahal izan dugu: kontratazio administratiboaren araudia ez da bete; izan ere, obrak adjudikatzeko oinarriko printzipioak, publikotasuna eta konkurrentzia, ez dira bete.

IV.2.2. Udalaren Kirol Patronatua

Gastuen eta dirusarreraren likidazio egoerak nahiko ongi agertzen du Patronatuak eginiko jarduera.

Patronatuaren jarduera, oro har, legezkotasun printzipioaren arabera da.

IV.2.3. Jai eta Kuturarako Udal Patronatua

Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioak nahiko ongi agertzen du Patronatuak eginiko jarduera.

Indarreko araudiko zenbait arau ez dira bete, batez ere kontratazio administratiboaren arloan.

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuaren kudeaketari buruzko barne kontroleko mekanismoak indartu eta osatzea, egindako eragiketak segurtatzeko eta bermatzeko; batez ere, saldoak berdinkatzeko eta berraztertze arloetan, kontabilitate printzipioetan eta inbentarioak eguneratzeari dagokionean.*

- *Urteko txostena beste finantza-egoera bat bezala egitea, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorraz ezarritako xehetasun guztiekin.*

- *Kontratazio administratiboari buruzko arautegia hertsiki betetzea, batez ere kontratazio espedienteak egiteari, kontratuak adjudikatzeko konkurrentzia printzipioari eta obren aurrekontu-kontabilitatea jarraitzeari dagokienez.*

- *Langileen kudeaketa orokorki aztertzea, eta ikustea ez ote den komeni Langileen Departamentu bat sortzea, plantilla udalaren beharretara egokitzea eta lanpostu bakoitzaren lan zama, lan-sariak eta gainerako gastu sozialak begiratzea.*

- *Hirigintzaren kudeaketari dagokionez, lehen-tasuna ematea udal plan bat, indarreko arautegia iri egokitua, egiteari, betebeharrak orokor batzuk betetzea eta jarduketaren kontrol eta jarraipen sistema hobetzea.*

- *Erakunde autonomoek, toki entitate publikoak diren aldetik, arautegi publikoaren arabera jardueran eduki behar dute, batez ere kontratazio administratiboaren arloan.*

- *Bestalde, horietako bakoitzaren eginkizunak argi eta garbi finkatu eta haien benetako autonomia maila zehaztu behar dira; haien jarduerari buruz Udalak eduki behar duen kontrola, kontuhartzaitza eta zaintza lanak gauzatzeko tresnak ezarri behar dira.*

- *Azkenik, 1994ko txostenean adierazten genuen bezala, Kultur Patronatua udal zerbitzu deszentralizatu bihurtzea aztertu beharko da, hain zuzen ere kudeatzen dituen baliabideen ehuneko 90 Udalak berak emandakoak direlako.*

V. FINANTZA EGOERAK

Ondotik udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoerak aurkeztu ditugu. Eragin-

kortasunaren mesedetan, ondokoak baizik ez ditugu azalduko:

V.1. UDALA

- Udalaren gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera-koa.

- Udalaren gastuen aurrekontuaren likidazioa, sailkapen ekonomiko eta funtzionalaren arabera-koa.

- Udalak 1998ko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzea.

- Udalaren 1998ko abenduaren 31ko diruzain-tza-gerakina.

V.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

- Gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera-koa.

Burlatako Udala, 1998 Dirusarreraren aurrekontu-betetzea

	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Kobratu-takoa	Kobratzeke dagoena	Betetze-aren %	Aitorturiko guztiaren gaineko %
		(Pezetak, milakoetan)			(Euroak, milakoetan)		(Pezetak, milakoetan)			
Zerga zuzenak	1	338.337	-	338.337	376.030	2.259,986	331.628	44.402	111	26
Zeharkako zergak	2	63.699	-	63.699	58.519	351,706	54.425	4.094	92	4
Tasak eta bestelako dirusarrerak	3	74.220	2.517	76.737	77.341	464,829	67.355	9.986	101	5
Transferentzia arruntak	4	596.074	178.719	774.793	644.553	3.873,842	604.590	39.963	83	44
Ondare dirusarrerak	5	20.563	-	20.563	19.834	119,205	15.453	4.381	96	1
Inbertsio errealak besterentzea	6	-	-	-	2.323	13,962	2.323	-	-	-
Kapital transferentziak	7	453.503	323.945	777.448	290.179	1.744,011	234.067	56.112	37	20
Finantza aktiboaren aldaketak	8	3.387	243.207	246.594	799	4,802	799	-	-	-
Finantza pasiboaren aldaketak	9	366.745	56.297	423.042	-	-	-	-	-	-
Dirusarrerak, guztira		1.916.528	804.685	2.721.213	1.469.578	8.832,343	1.310.640	158.938	54	100

Gastuen aurrekontu betetzea

	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordain-dutakoa	Ordaintzeke dagoena	Betetze-aren %	Aitorturiko guztiaren gaineko %
		(Pezetak, milakoetan)			(Euroak, milakoetan)		(Pezetak, milakoetan)			
Langileen lansariak	1	608.246	157.347	765.593	645.159	3.877,484	636.366	8.793	84	41
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2	162.814	33.661	196.475	178.652	1.073,720	140.420	38.232	91	11
Korrituak	3	76.454	(7.407)	69.047	67.635	406,495	67.375	260	98	4
Transferentzia arruntak	4	165.469	(2.415)	163.054	157.496	946,570	136.725	20.771	97	10
Inbertsio errealak	6	837.531	625.949	1.463.480	466.061	2.801,083	388.488	77.573	32	30
Finantza aktiboaren aldaketa	8	3.387	-	3.387	950	5,710	450	500	28	-
Finantza pasiboaren aldaketa	9	62.627	(2.450)	60.177	57.691	346,730	57.691	-	96	4
Gastuak, guztira		1.916.528	804.685	2.721.213	1.573.644	9.457,792	1.427.515	146.129	58	100

Burlatako Udala
1998ko aurrekontu betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren arabera

(pezetak, milakoetan)

Kode funtzio- Azalpena nala	Langile gastuak	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	Finantza gastuak	Transfe- rentzia arruntak	Inbertsio errealak	Kapital transfe- rentziak	Finantza- aktiboak	Finantza- pasiboak	Aitorturiko obligazioak, guztira	Guztizko- aren gaineko %
01 Zor publikoa	-	-	67.145	-	-	-	-	57.691	124.836	8
11 Gobernu organoak	15.061	386	-	-	-	-	-	-	15.447	1
12 Administrazio orokorra	29.342	40.239	-	632	3.358	-	950	-	74.521	5
22 Segurtasuna eta babes zibila	124.269	8.751	-	-	5.743	-	-	-	138.763	9
31 Segurtasuna eta gizarte babesa	285.773	13.660	-	11.058	13.060	-	-	-	323.551	20
32 Gizarte sustapena	69.550	13.572	-	3.216	5.804	-	-	-	92.142	6
41 Osasuna	-	1.155	-	-	-	-	-	-	1.155	-
42 Hezkuntza	13.610	21.189	-	30.035	9.091	-	-	-	73.925	5
43 Hirigintza	66.396	47.417	-	1.513	74.670	-	-	-	189.996	12
44 Komunitatearen ongizatea	8.714	3.855	-	-	-	-	-	-	12.569	1
45 Kultura	5.529	6.306	-	101.271	69.171	-	-	-	182.277	11
46 Komunitatearen eta gizartearen bestelako zerbitzuak	-	4.580	-	9.771	-	-	-	-	14.351	1
51 Oinarrizko azpiegiturak eta garraioa	-	-	-	-	285.164	-	-	-	285.164	18
61 Araupetze ekonomikoa	26.915	17.542	490	-	-	-	-	-	44.947	3
Guztira	645.159	178.652	67.635	157.496	466.061	-	950	57.691	1.573.644	100

Burlatako Udala
1998-12-31ko balantzea

AKTIBOA	Pezetak, milakoetan	Euroak, milakoetan	PASIBOA	Pezetak, milakoetan	Euroak, milakoetan
IBILGETUA	5.254.374	31.579,424	ONDAREA	3.280.610	19.716,863
Ibilgetu materiala	3.316.711	19.933,835	Ondarea	2.255.177	13.553,887
Lurzoruak eta ondasun naturalak	602.857	3.623,244	Aplikatzeko dauden emaitzak	1.025.433	6.162,976
Eraikinak	2.519.515	15.142,590			
Makineria, instalazioak eta tresneria	54.734	328,958	KAPITAL DIRULAGUNTZAK	817.721	4.914,602
Garraio elementuak	23.230	139,615	Jasotako kapital dirulaguntzak	817.721	4.914,602
Altzariak	94.756	569,495			
Informazioa prozesatzeko ekipoak	13.737	82,561	EPE LUZEKO ZORRAK	1.380.474	8.296,816
Bestelako ibilgetu materialak	7.882	47,372	Jasotako maileguak	1.380.474	8.296,816
Ibilgetu ez-materiala	36	0,216			
Bestelako ibilgetu ez-materiala	36	0,216			
Inbent. eta erabilera orokorreko onda.	1.937.127	11.642,368	EPE LABURREKO ZORRAK	207.609	1.247,756
Lurzoruak eta ondasun naturalak	1.598.867	9.609,384	Aitorturiko obligazioen hartzekodunak	34.497	207,331
Ondasun komunaletan eginiko inber.	338.260	2.032,984	Agindutako ordainketen hartzekodunak	145.296	873,246
Finantza ibilgetua	500	3,005	Entitate publikoak	18.845	113,261
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	500	3,005	Beste hartzekodunak, aurrekontuaz beste.	8.971	53,918
ZORDUNAK	306.149	1.839,993	EMAITZAK	126.307	759,120
Aitorturiko eskubideen zordunak	305.917	1.838,598	Ekitaldiaren emaitzak	126.307	759,120
Beste zordunak, aurrekontuaz beste.	232	1,395			
FINANTZA KONTUAK	252.198	1.515,740			
Aldi baterako finantza inbertsioak	250	1,502			
Kutxa	1.582	9,508			
Bankuak eta kreditu-erakundeak	250.366	1.504,730			
AKTIBOA, GUZTIRA	5.812.721	34.935,157	PASIBOA, GUZTIRA	5.812.721	34.935,157

Burlatako Udala
1998-12-31ko diruzaintza-gerakinaren egoera

(pezetak, milakoetan)

		Zenbatekoak
1 (+) Ekitaldiaren bukaeran kobratzeko dauden zordunak		172.021
Dirusarreraren aurrekontua. Indarreko aurrekontua	158.938	
Dirusarreraren aurrekontua. Ixitako aurrekontuak	146.979	
Aurrekontuaz besteko eragiketak	232	
Ken, kobratzeko zailak diren saldoak	(134.128)	
2 (-) Ekitaldiaren bukaeran ordaintzeko dauden hartzekodunak		(207.608)
Gastuen aurrekontua. Indarreko aurrekontua	(146.129)	
Gastuen aurrekontua. Ixitako aurrekontuak	(33.663)	
Aurrekontuaz besteko eragiketak	(27.816)	
3 (+) Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren fondo likidoak		251.948
5 Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina (1+2+3-4)		216.361
Diruzaintza gerakina, guztira		216.361

Udalaren Musika Eskola
1998ko gastuen aurrekontu-betetzea

Azalpena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordaintzeke dagoena
	Pezetak, milakoetan		Euroak, milakoetan			Pez., milakoet.
1. Langileak	59.964	718	60.682	61.104	367,242	1.381
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	5.430	232	5.662	5.123	30,790	401
4. Transferentzia arruntak	50	-	50	50	0,301	-
6. Inbertsio errealak	6.607	508	7.115	5.998	36,049	23
8. Finantza aktiboen aldaketak	-	515	515	515	3,095	-
Gastuak, guztira	72.051	1.973	74.024	72.790	437,477	1.805

1998ko dirusarreraren aurrekontu-betetzea

Azalpena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Biltzeke dagoena
	Pezetak, milakoetan		Euroak, milakoetan			Pez., milakoet.
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	25.113	-	25.113	21.480	129,097	-
4. Transferentzia arrunten bidezko dirusarrerak	46.938	1.458	48.396	50.228	301,876	5.217
8. Finantza aktiboak	-	515	515	284	1,707	-
Dirusarrerak, guztira	72.051	1.973	74.024	71.992	432,680	5.217

Kirol Patronatua
1998ko gastuen aurrekontu-betetzea

Azalpena	Hasierako aurrekontua	Alda-ketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordaintzeke dagoena
	Pezetak, milakoetan		Euroak, milakoetan Pez., milakoet.			
1. Langileak	85.612	(13.389)	72.223	72.224	434,075	1.346
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	44.525	12.513	57.038	56.144	337,432	13.839
3. Korrituak	50	150	200	193	1,160	(1)
4. Transferentzia arruntak	18.980	(479)	18.501	15.100	90,753	6.364
6. Inbertsio errealak	2.000	1.205	3.205	2.951	17,736	1.283
8. Finantza aktiboen aldaketak	800	-	800	800	4,808	-
Gastuak, guztira	151.967	-	151.967	147.412	885,964	22.831

1998ko dirusarrerren aurrekontu-betetzea

Azalpena	Hasierako aurrekontua	Alda-ketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Biltzeke dagoena
	Pezetak, milakoetan		Euroak, milakoetan Pez., milakoet.			
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	95.090	-	95.090	96.595	580,548	957
4. Transferentzia aurruntzen dirusarrerak	55.077	-	55.077	54.599	328,147	2.819
5. Ondare dirusarrerak	1.000	-	1.000	747	4,490	-
8. Finantza aktiboak	800	-	800	600	3,606	-
Dirusarrerak, guztira	151.967	-	151.967	152.541	916,791	3.776

Kultur Patronatua
1998ko gastuen aurrekontu-betetzea

Azalpena	Hasierako aurrekontua	Alda-ketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordaintzeke dagoena
	Pezetak, milakoetan		Euroak, milakoetan Pez., milakoet.			
1. Langileak	10.040	(302)	9.738	9.736	58,515	266
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	31.782	1.734	33.516	32.613	196,008	3.180
4. Transferentzia arruntak	9.892	(1.432)	8.460	8.387	50,407	-
6. Inbertsio errealak	1.500	-	1.500	997	5,992	301
Gastuak, guztira	53.214	-	53.214	51.733	310,922	3.747

1998ko dirusarrerren aurrekontu-betetzea

Azalpena	Hasierako aurrekontua	Alda-ketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Biltzeke dagoena
	Pezetak, milakoetan		Euroak, milakoetan Pez., milakoet.			
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	-	-	-	614	3,690	3
4. Transferentzia aurruntzen dirusarrerak	53.214	-	53.214	53.161	319,504	5.528
Dirusarrerak, guztira	53.214	-	53.214	53.775	323,194	5.531

VI. BURLATAKO UDALARI BURUZKO IRITZIAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

VI. 1998KO AURREKONTU-BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

• 1998ko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuak 1.916 milioi pezetako hasierako kredituak agertzen ditu. Hasierako aurreikuspen horiek hainbat aldaketa izan dituzte gastuen eta dirusarreraren aurrekontuetan; 805 milioi pezeta egiten dute aldaketa horiek, eta, batez ere, aurreko ekitaldiko diruzaintza-gerakina sartzeari zor zaie.

Behin betiko aurreikuspenak edo aurrekontu bateratua, beraz, 2.721 milioi pezetakoa da, gastuak eta dirusarrerak hartuta.

• Aitorturiko obligazioek 1.574 milioi pezeta egiten dute. Haien betetze-maila, berriz, ehuneko 58 da. Hura azaltzeko, funtsean, inbertsioen kapituluaren betetzea hartu behar da aintzat –ehuneko 32; beraz, 997 milioi pezeta gutxiago inbertsioetan; hala ere 1999an betetzen ari da—. Ondokoak dira 1998ko behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsio nagusiak eta ekitaldi horretan bete ez direnak: igerileku estalia, kultur etxea, udal parkeko jauregitxo berritzea, obra eta zerbitzuen pabilioia, lantegi-eskola eta udal bulegoak berritzea.

Hona haren osaketa, ehunekoak erabiliz:

Gastuak	Ehunekoak
Funtzionamendua	62
Inbertsioa	30
Finantza karga	8
Guztira	100

Antzematen denez, gastuen elementu aipagarriena funtzionamendu gastuei –langileak, ondasunak eta transferentzia arruntak– dagokiena da; hain zuzen ere, Udalak gastatzen dituen 100 pezetetatik 62 –langileria gastuetan 41 pezeta gastatzen dira–. Inbertsio errealean kapituluaren, N-121 errepidea bikoizteko obrak aipatu behar dira. Obra horiek kontzeptu honen gastu guztien ehuneko 61 egiten dute.

• Langileei dagokienez, 1998ko abenduaren 31n, ondoko langileek egiten zuten lan Udaletxean:

Lan-harremana	Zenbat
Funtzionarioak	68
Lan-kontratatu finkoak	18
Behin behineko kontratudunak eta programetakoak	123
Guztira	209

Administrazio-kontabilitatearen arloan 10 pertsonak egiten dute lan, idazkaria eta kontu-hartzailea barne.

Goi kargudunen lansariei 11,4 milioi pezeta egiten dute; diru horretatik 4,9 milioi alkateari dagozkionak dira.

• Aitorturiko eskubideei dagokienez, 1.470 milioi pezeta egiten dute, eta haien betetze-mailak ehuneko 54 egiten du. Hori azaltzeko, funtsean, kapital-transferentzien kapituluaren betetze-maila hartu behar da kontuan –aurreikusitako zenbatekoa: 777 milioi pezeta; benetako zenbatekoa: 290 milioi pezeta; izan ere, ehuneko 37 baizik ez da bete—. Gainera, 1998an ez dira eskatu, azkenean, aurreikusi ziren 423 milioi pezetako maileguak. Bai mailegu horiek, bai aurreikusita zeuden baina 1998an sartu ez diren kapital-dirulaguntzek helburu argia zuten: arestian aipatu eta 1999an gauzatzen ari diren inbertsioak finantziatzea.

Ekitaldiko dirusarrerak honela daude osaturik, ehunekoetan:

Dirusarrerak	Ehunekoak
Tributu-dirusarrerak	35
Transferentziak	64
Ondare-dirusarrerak	1
Guztira	100

Hau da, transferentziak dira 1998ko aurrekontuaren finantza-iturri nagusia –aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko 64 pezeta dira finantza-iturri horretakoak–. Tributu-dirusarrerak, ordea, ehuneko 35 egiten dute. Bestalde, ondare-dirusarreraren garrantzi txikia azpimarratu behar dugu; izan ere, dirusarrera guztien ehuneko 1 baizik ez dute egiten.

Ondoko koadroan jaso ditugu tributu-figura nagusiak eta 1998an haietako bakoitzean aitorturiko zenbatekoa:

Tributuak	Zenbatekoa (pezeta, milakoetan)
Hirilur kontribuzioa	194
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	83
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	20
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	59
Ibilgailuen zirkulazioari buruzko zerga	79
Lurgain eskubideak	21
Hilerriak	6
Ibiak	5
Hirigintza lizentziak	4
Irekitzeko lizentziak	7

Azpirarratzekoa da lurralde kontribuzioak daukan garrantzia; izan ere, gainerako tributu-figurak erraz gainditzen ditu. Bestalde, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren barnean, 1997ko ekitaldikoa sartu da -41 milioi pezeta-; zenbateko hori ez zen erregistratu urte hartako aurrekontuko likidazioan.

Udalak bilduriko zergei dagokienez, ondotik azaldu ditugu Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak baimendutako gehieneko zenbatekoen aldera Udalak aplikatzen dituen tarifak, zerga motaren arabera sailkatuz:

Tributu figura	Ehuneko/Indizea	
	Udala	Toki Ogasunei buruzko Legea
Hirilur kontribuzioa	0,357	0,10 - 0,50
Landalur kontribuzioa	0,70	0,10 - 0,80
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,22	1 - 1,4
Lurzoruen balio gehikuntza	12	8 - 20
• 5 urte bitarte	3	2,2 - 3,3
• 10 urte bitarte	2,9	2,1 - 3,2
• 15 urte bitarte	2,7	2,0 - 3,1
• 20 urte bitarte	2,7	2,0 - 3,1
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

Udalak ez ditu ordainarazten luxuzko gastuen gaineko zergak, ez eta bete gabeko etxebizitzaren gainekoa ere; izan ere, horiek biak, gaurko legediaren arabera, toki entitate bakoitzaren esku daude. Jakin izan dugunez, lehenbizikoak oso toki gutxi dauka udalerrri horretako jardueretan; bigarrena ordainarazteko, ordea, zailtasun handiegiak daude, hura ezarri gero lortuko litzatekeen onuraren aldean.

- 1998ko betetze-egoeran 104 pezetako aurrekontu defizita antzeman dugu; zenbateko hori aitorturiko eskubideen eta aitorturiko obligazioen arteko aldeari dagokio. Saldo horri finantziarioaren desbideraketan eta 1997ko diruzaintza-gerakina gaineratzearen bidez eginiko gastuen finantziarioaren ondoriozko doikuntzak eginez gero, ekitaldiko aurrekontuak 63 milioi pezetako superabita egiten du.

- 1998ko abenduaren 31n, ordaintzeko dauden zenbatekoak -gastuen erresultak- 180 milioi pezeta egiten dute; horietatik 34 milioi pezeta aurreko ekitaldietakoak dira. Kobratzeko dauden zenbatekoak -dirusarreraren erresultak- 306 milioi pezeta egiten zuten; haien ehuneko 48ren jatorria aurreko ekitaldietan dago.

- Abenduaren 31ko diruzaintza gerakinak 216 milioi pezeta egiten du; diru zenbateko hori ondokoaren emaitza da: kobratzeke ziren 208 milioi

pezetako zorrak, kobratzeke zeuden 172 milioi pezetako dirusarrerak eta 252 milioi pezetako fondo likidoak. Kobratzen zailak dira, batez ere, itxitako aurrekontuetatik datozen eta kobratzeke dauden zenbatekoak. Diruzaintza gerakina bitan banaturik dago: finantziario atxikia duten gastuei atxikitako gerakina -105 milioi pezetako zenbateko-, eta gastu orokorretarako gerakina -111 milioi pezetako-.

- Azkenik, ondoko koadroan ehunekoak erabiliz adierazi dugu 1998ko gastuen aurrekontu-betetzea, funtzioen arabera zehaztuta:

Azalpena	Ehuneko
Zor publikoa	8
Gobernu organoak	1
Administrazio orokorra	5
Segurtasuna eta babes zibila	9
Segurtasuna eta gizarte babesa	20
Gizarte sustapena	6
Hezkuntza	5
Etxebizitza eta hirigintza	12
Komunitatearen ongizatea	1
Kultura eta kirola	11
Bestelako komunitate- eta gizarte-zerbitzuak	1
Oinarrizko azpiegiturak eta garraioa	18
Araupetze ekonomikoa	3
Guztira	100

Horiek guztiak aztertuz, hauexek azpimarratu behar dugu: Udalaren 1998ko gastuaren ehuneko ia 60 gizarte babesa, azpiegiturak, etxebizitza eta hirigintza eta kultura eta kirola alorretan erabili dela.

VI.2. 1998ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

1998an, Udalak ondoko ratio edo adierazleak zituen (1997koekin alderatu ditugu):

Adierazleak	1998 ⁽¹⁾	1997 ⁽¹⁾⁽²⁾
Aurrekontu superabita (defizita) (milioi pezetatan)	(104)	20
Biztanle bakoitzeko dirusarrerak (pezetatan)	92.659	97.071
Biztanle bakoitzeko gastuak (pezetatan)	99.221	95.789
Biztanle bakoitzeko finantza-zama (pezetatan)	7.902	8.385
Ingresos tributarios por habitante (pezetatan)	32.276	26.084
Biztanle bakoitzeko tributu-dirusarrerak (pezetatan)	89	85

Kobrantzen betetzea (ehunekoa)	91	92
Ordainketen betetzea (ehunekoa)	11	13
Zorpetze maila (ehunekoa)	17	11
Zorpetzearen muga (ehunekoa)	6	(2)
Aurrezki garbia (ehunekoa)	41	41
Langileriaren indizea (ehunekoa)	30	29
Inbertsioaren indizea (ehunekoa)	64	61

(1) 1997ko kalkuluak egiteko 15.366 biztanleko kopurua erabili dugu –1996ko maiatzaren 1eko errolda–; 1998ko kalkuluetarako, berriz, 15.860 biztanleko kopurua –1998ko urtarrilaren 1eko erroldako datua–.

(2) Fiskalizatu gabeko ekitaldia.

Datu horiek aztertutik, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

- 1998ko ekitaldian, 124 milioi pezetako aurrekontuaren emaitza murriztua ageri da. Hori neurri batean azaltzeko, aintzat hartu behar da 1997an 164 milioi pezetako mailegua eskuratu zuela Udalak; 1998an, berriz, ez da dirusarrerarik izan kontzeptu horregatik.

- Biztanleko dirusarrerak ehuneko 5 jaitsi badira ere, gastuek ehuneko 4 egin dute gora; hori ere baliagarria da emaitza murriztua neurri batean azaltzeko.

- 1997an Udalak epe luzerako 164 milioi pezetako mailegu bat eskuratu bazuen ere, biztanle bakoitzeko karga-zama jaitsi egin da korritu-tasak jaistearen ondorioz; izan ere, aipatu mailegua ezaldian zegoen 1998an.

- Biztanle bakoitzeko tributu-dirusarrek ehuneko 24 egin dute gora, batez ere 1998ko aurrekontuaren likidazioan 1998 eta 1997ko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergak kontzeptupean zenbait dirusarrera erregistratu direlako; 1997ko ekitaldian, berriz, ez zen kontzeptu horretako dirusarrerarik kontabilizatu.

- Zorpetze mugaren handitzea 1997an zorpetutako JEZaren eraginari zor zaio; 1998an erregistratu zen hori, eta 41 milioi pezeta egiten zituen. Balio absolutua hartuta, 1998ko ekitaldiko aurrezki gordinak 195 milioi pezeta egiten zuen; 1997an, berriz, 115 milioi pezeta egiten zuen. Aipatu JEZaren eragina alde batera utzita, "aurrezki gordin doitua" antzekoa da bi ekitaldietan: 155 milioi pezeta, gutxi gorabehera. Bestalde, zorpetze-mugak behera egiten jarraitzen du; horri zorpetzearen mugaren handitzea gehituz gero, Udalaren aurrezki garbiaren iguera azal daiteke.

- Langileria gastuek eta inbertsioek egiten duten ehunekoak berdin jarraitu du; hala ere, aipatu gastuen balio absolutua igo egin da 1998an.

- Bi ekitaldi horietan, Udalaren baliabideen ehuneko 60 baino gehiago beste entitateetatik eginiko transferentzietan zor zaie.

1998ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez, hona zenbatekoa:

	(pezetak, milioika)
Adierazleak	1998
Diruzaintza-gerakina	216
Epe luzeko zorra	1.380

Hau da, diruzaintza-gerakinak epe luzeko zorraren ehuneko 16 egiten du eta finantziario iturri eskas samarra da 1999ko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioetarako; izan ere, Udalak inbertsio horiei ekiteko beste mailegu batzuk lortzea aurreikusi du.

1998ko abenduaren 31n, epe luzeko zorraren zenbatekoa handia da: ekitaldiko aurrezki gordinaren 7 halako eta aurrezki garbiaren 20 halako da.

Hona 1998ko abenduaren 31n itzultzeke dauden maileguen ezaugarriak buruzko xehetasun batzuk:

	(pezetak, milaka)		
Entitatea	Abendu-aren 31n itzultzeke	Korritu-tasa	Muga-eguneko urtea
Iruñeko Kutxa (*)	29.809	% 6,049	2009
Iruñeko Kutxa	401.514	% 5,490	2006
Iruñeko Kutxa (*)	25.424	% 9,500	2018
Iruñeko Kutxa	444.256	% 4,137	2011
Iruñeko Kutxa	163.583	% 5,250	2012
Nafarroako Aurrezki Kutxa	80.518	% 4,910	2004
Nafarroako Aurrezki Kutxa (*)	235.269	% 3,930	2019
Guztira	1.380.373		

(*) Berme hipotekarioa.

Halaber, kontuan hartu behar da aurreko ekitaldietan lorturiko maileguak ezaldian zeudela 1998an. Printzipalaren amortizazioa 1999ko ekitaldian zen hastekoa; beraz, aurreikusita dago ekitaldi horretan Udalak jasotzen duen finantza-zama handituko dela, eta, beraz, aurrezki garbia jaitsi egingen dela.

Hori dela eta, Udalak aurreikusi du hurrengo ekitaldian 153 milioi pezeta erabiliko dituela 1998ko abenduaren 31ko zor bizia ordaintzeko printzipalaren gehi korrituen kuotak ordaintzeko; zenbateko hori 1998ko ekitaldia ixteko "aurrezki gordin doitua" gisa arestian lorturikoaren ia berdina da; sorturiko aurrezki garbia ia deuseza da. Uste dugu Udalak joera hori zuzendu egin behar duela: dirusarrera arrunt gehiago ekarri beharko

lituzke, edo bestela funtzionamendu-gastuak murriztu egin beharko lituzke.

Azkenik, ondoko koadroan, zenbait ratorio dagokionez, Burlatako Udalaren 1998ko informazioa eta biztanleria-tarte berdineko Nafarroako udalek 1997an izan zuten batez bestekoa alderatu ditugu⁽¹⁾:

Ratioak	10.000-50.000	
	biztanle, 1997an	Burlata, 1998an
Biztanle bakoitzeko gastu arruntak (pezetatan)	80.258	66.138
Biztanle bakoitzeko dirusarrera arruntak (pezetatan)	99.772	74.166
Biztanle bakoitzeko tributu-dirusarrerak (pezetatan)	54.593	32.276
Zorpetzearen muga (pezetatan)	23	17
Zorpetze-maila (pezetatan)	7	11
Zorpetzeko ahalmena (pezetatan)	16	6

Alderaketa honen mugetatik abiatuta⁽²⁾, ondokoak dira azpimarratu beharreko egitateak:

- Burlatako biztanle bakoitzeko gastu eta dirusarrera arruntak nahikoa txikiagoak dira tarte bereko udalen batez bestekoa baino.

- Burlatako biztanleek Udalarri ematen dizkion tributu-dirusarrerak tarte bereko udalen batez bestekoa baino ehuneko 41 txikiagoak dira.

- Zorpetzearen muga era batez bestekoa baino txikiagoa da.

VI.3. GORABEHERAK

Udalak emaniko informazioari jarraituz, ebazteko dauden errekurtsio garrantzizkoenak langileria arloko gaiei buruzkoak dira. Oro har, errekurtsioak jarri dira, besteak beste, plantilla organikoak onesteko, lansari osagarriak ezartzeko edo gradua eta maila aitortzeko Osoko Bilkurak harturiko erabakien edo Alkatetzak emandako ebazpenen aurka. Ezin da zenbatu errekurtsio horiek direla-eta gerta daitezkeen gorabehera ekonomikoen munta.

VI.4. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA

Atal honetan, alde batetik horniduren erosteari eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta bestetik inbertsioak azalduko ditugu.

VI.4.1. Hornidurak erostea eta zerbitzuak ematea

Egindako lanari dagokionez, ondokoak dira azpimarratzekoak:

- Erosketak egiteko sistemari buruz egindako laginketa dela eta, ondoko gomendio orokorrak egin nahi ditugu:

a) *Bai Udalarri bai erakunde autonomoei erosketak egiteko aplikatzen zaien prozedura idatziz garatzea; berariaz garatu beharko da arautegiari jarraituz aholkularitza juridikoak eta Udalaren kontu-hartzaileak daukaten papera.*

b) *Jarduketa bati buruzko dokumentazio guzti-guztia espediente bakarrean artxibatzea.*

c) *Ahaleginak egitea ekitaldi bakoitzak ekitaldian bertan sortutako gastu guztiei euts diezaien.*

- Kontratazio espedienteak azterturik, hauxe azpimarratu behar da: zenbait kasutan, Udalak lorturiko hiru hornidura-eskaintza eta hornidura adjudikatzeko Udalak harturiko erabakia baizik ez dago espedientean. Kasu horietako batean, ikusi ahal izan dugu ez zitzaiola hornidura adjudikatu eskaintza merkeenari, eta espedientean ez da ageri hartutako erabakia justifikatzeko informazio nahikoa.

Bestalde, oro har, Udalak ez du kontraturik egin hirugarrenekin dauzkan harremanetarako.

Kontratazioari buruzko arauak hertsiki aplikatzea gomendatzen dugu.

VI.4.2. Inbertsioak

Ondoko kontratazio espedienteak aztertu ditugu, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokien egozketa kontuan hartu gabe:

Espedientea	(pezetak, milaka)	
	Adjudikatzeko prozedura	Gastua, 1998(*)
Beisbol zelaia berritzea	Negoziatua	39
N-121 errepidea bikoiztea	Lehiaketa	285
"E" sektorea urbanizatzea	Lehiaketa	50

(*) Obraren kostuaz gainera, teknikarien lansarien kostua ere sartu da.

Azterturiko espediente guztiek kapitulu honetako ekitaldiko obligazioen ehuneko 80 egiten dute.

(1) Toki Administrazioako Departamentuak igorritako datuak, Ganbara honek 1997ko Toki Sektore Publikoari buruzko txostenean argitaratuak.

(2) Batez ere, zerbitzu publikoak emateko moduan eta kalitatean dauden modu ezberdinak gogoratu nahi ditugu.

Ondotik, ondorio eta iruzkin aipagarrienak azalduko ditugu:

- Inbertsioen aurrekontu-kontabilitatearen jarraipenari dagokionez, hauxe azpimarratu behar dugu: ekitaldiko eragiketen mozketak egokia ez da modu finko batez egin.

Zehazki, beisbol zelaia berritzeko 1998an errejistraturiko gastu guztia bat dator 1997ko ekitaldian sorturiko obra-ziurtagiri batekin. Halaber, N-121 errepidea bikoizteko obrak zirela-eta 1998an errejistraturiko 20 milioiko zenbatekoa bat dator 1997an sortutako obra-ziurtagiri batekin.

- Azterturiko kontratazio-espeditanteetan akats komunak aurkitu ditugu:

a) Ez da txosten juridikorik, ez kontu-hartzailetzakorik, ez kreditua egoteari buruzko ziurtagiririk ere ageri.

b) Adjudikazio iragarkia ez da NAOn argitaratu.

- Obra zehatzak. Atal honetan, azterturiko espeditanteetako alderdi aipagarrienak adierazi ditugu:

a) Beisbol zelaia berritzea.

1996ko urtarrilaren 19ko Osoko Bilkurak zera erabaki zuen: obrak adjudikatzeko enkanteko izapidea ez egitea; izan ere, 1993ko abenduaren 20ko 921/93 Foru Aginduaren bitartez emaniko dirulaguntza 1993, 1994 eta 1995eko ekitaldieta-ko kontusailen kargura eman da, eta horrek derri-gorrezko egiten du obrei lehen bait lehen ekitea. Halaber, ondokoa erabaki zen: adjudikazio zuzena egiteko prozesuari ekitea, alde aurreko gonbitea eginez, eta eskaintza ekonomikoa Nafarroako 10 enpresari haiek egiteko. Proposamenak aurkezteko epea 10 eguneko da, gonbidapena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Hala ere, azpimarratu egin behar da arkitektoek eginiko proiektua eta eranskinak Arkitektoen Elkargo Ofizialak 1995eko apirilaren 26an ikusonetsita daudela, obra adjudikatzeko prozesua hasi baino ia bederatzita hilabete lehenago; hori dela eta, adjudikazio prozeduraren aukera ez dago behar bezala justifikaturik.

Kontratazio Mahaiaren 1996ko otsailaren 7ko aktaren arabera 5 lizitzaile aurkeztu ziren; horietatik bi lehiaketatik kanpo gelditu ziren obrak egiteko enpresa laguntzaileen eta haien giza- eta gauza-baliabideak ez aipatzeagatik. Kontratazio mahaiak ez zien lizitzaile horiei eperik eman beren proposamentan falta zuten dokumentazioa aurkezteko. Gainera, onarturiko proposamenek, horri dagokionez, enpresa laguntzaileen izenen

zerrenda besterik ez dute erakutsi, ez giza baliabiderik ez gauza baliabiderik aipatu gabe. Horregatik, uste dugu ez dela zuzen baloratu proposamenen dokumentazioa.

b) N-121 errepidea bikoiztea. Obren adjudikazioa lehiaketaren bitartez egin zen, pleguan ponderaturiko balioespen irizpideak erabiliz. Hona irizpide horiek:

1. Proiektuari atxikitako lantaldea	% 20
2. Eskaintzari buruzko balioespen teknikoa	% 25
3. Proposamen ekonomikoa	% 25
4. Enpresari buruzko balioespena	% 30

Halaber, enpresari buruzko balioespena honek ponderatu ziren:

4.1. Antzeko obrak egin izanagatik esperientzia; eskualdean egindakoak bereziki baloratuko dira	%10
4.2. bateko diametroa edo handiagoa duten hodi biltzaileak jarri izanagatik esperientzia	%10
4.3. Burlatako Udalaren intereseko bestelako kontuak	%10

Horri dagokionez, adierazi beharrekoa da azken irizpide horietako lehenbizikoak eta hirugarrenak eraginik izan dezaketela lehia askearen printzipioan.

Ondorioz, eta aztertutako laginari buruzko laburpen orokor gisa, hona Ganbara honek Udalari gomendatzen dizkionak:

Kontratazio administratiboa araupetzen duten arauak hertsiki betetzea, batez ere kontratazio espeditanteak egiteari, kontratuak adjudikatzeko konkurrentzia printzipioari eta obren aurrekontu-kontabilitatearen jarraipenari dagokienez.

VI.5. KUDEAKETARI BURUZKO BESTE GOMENDIO BATZUK.

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganbararen iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurri buruzko gomendio nagusiak emango ditugu.

Zenbait arlotan, ematen ditugun gomendioak ezarrita daude, edo, bestela, 1999ko ekitaldian ezartzeko aurreikusita.

VI.5.1. Antolamendu orokorra

Ganbara honek ondoko gomendioak eman ditu:

- *Barne Araubideari buruzko Erregelamendu bat egitea. Hartan, bai Udalaren organo exekuti -*

boen eskumenak bai eta beste erakunde autonomoekiko harremanak zehaztu egin beharko dira.

- *Plantilla langileen beharretara egokitzeari buruzko azterlan bat egitea. Haren arrazoizkotasuna, lanpostu bakoitzeko lan karga eta lansariak, eta gastu sozialak aztertu beharko dira.*

- *Kudeaketari buruzko oinarriko prozedurak idatziz jartzea, eta exekuzio fase ezberdinetako erantzuleak identifikatu eta esleitzea.*

- *Udalak eta udal patronatuak beren kargu hartu behar dituzten gastuak eta dirusarrerak argitu eta zehaztea.*

- *Udalak bere erakunde autonomoen ekintzen gainean eduki behar duen kontrola eta tutoretza bermatzeko behar diren prozedurak diseinatzea.*

VI.5.2. Inbentarioa-ibilgetua

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren ondasunak, bai jabego publikoak bai ondare ondasunak eta ondasun komunak, eskriturretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *1995eko udal inbentarioa eguneratzea.*

- *Udalaren inbentarioa etengabe eguneratuta edukitzeko eta kontabilitatearekin lotura egokia izateko behar diren prozedurak diseinatu eta aplikatzea.*

- *Altak eta bajak kontabilizatzeko eta ibilgetuaren dokumentazioa artxibatze prozedurak finantzu eta ezartzea, kontu horiei aplikatu behar zaizkien kontabilitate irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldok aztertu eta garbitzea, Udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

VI.5.3. Langileak

Arlo honetan egindako azterketaren ondorioz, hauxe azpimarratu behar dugu: Udaleko langile bati 1998ko abenduan aldi berean aparteko orduengatik eta lanaldia luzatzeagatik ordaindu zaiola. Ordainketa hori, alkateak onetsi zuen, nahiz eta idazkariak eta kontu-hartzaileak sinaturiko txosten batez alkateari jakinarazi zitzaion ordainketa horiek bateraezinak zirela.

Hona langileriaren arloko gomendio orokorrak:

- *Langileria Departamentu bat sortzea komeni den aztertzeari, arlo horretako berezko eginkizunen kudeaketa-lana eta nominak egiteko lana bere gain hartzeko.*

- *Nominak egiteko barneko edo kanpoko sistema zein den alde batera utzita, nominak egokiak*

direla bermatzeko prozeduraren bat diseinatzea, behar diren egiaztapenak egiteko eta barne koherentzia segurtatzeko tresnak erabiliz.

- *Udalaz kanpoko aholkularitzaren dokumentazioa kontrolatzeko prozedurak ezartzea.*

- *Langileen administrazio-espedituetan dagoen dokumentazioa osatzea, behar den dokumentazio guztia eduki dezaten.*

- *Langileak lanera ez joateari buruzko informazio koantitatiboa sortzea.*

- *Zerga-arauak lansari mota guzti-guztiei aplikatzea.*

VI.5.4. Tributu-dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

Hona gure gomendioak:

- *Dirusarrearen kudeaketari buruzko datuak berdinkatzea eta alderaketa bideratuko duten prozedurak diseinatu eta sistematikoki aplikatzea, segurtasun eta fidagarritasun handiagoak lortzeko kontabilitateari eta aurrekontuei buruzko informazioan.*

- *Tributu-figura ezberdinen errolden aldaketak formalki onestea.*

- *Tasen eta prezio publikoen kostuei buruzko azterlanak aldiro eguneratzea.*

VI.5.5. Zordunak

Hona gure gomendioak:

- *Berankorren saldoak –batez ere, oso zaharrak direnak– arrazoizkoak diren aztertzeari, eta haiei baja ematea finantza-egoeretan, bidezkoa bada.*

VI.5.6. Langileentzako diru-aurrerakinak

Hona gure gomendioak:

- *Egindako gastua justifikatzeko dokumentazioa eskatzea, langileentzako diru-aurrerakinei buruzko erabakietan adierazten den bezala.*

VI.5.7. Alderdi orokorrak

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuan, gastu eta dirusarrera guztiak sortzapenaren arabera kontabilizatzeari. Horrela, aurrekontu-betetzearen jarraipen egokia egin ahal izanen da.*

- *Gastuak eta dirusarrerak beren jatorri ekonomikoaren arabera egozte aurrekontuari.*

- *Aurrekontuak legedian ezarritako epeetan prestatu eta onestea, eta likidazioa azkarrago egitea.*

• *Aurrekontu-aldaketen espedienteak modu egokian osatzea. Betiere, idatzizko txostena egin beharko da, eta NAOn argitaratu beharko dira aurrekontu-aldaketa guztiak, kontabilizazioaren, informazioaren eta onespeneraren artean tarterik utzi gabe.*

VI.6. HIRIGINTZA

VI.6.1. Alderdi orokorrak.

Burlatako lehenbiziko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) 1980ean onetsi zen. Gaur egun, HAPO berri bat dago indarrean: 1980ekoaren berrazterketa bat da, eta Nafarroako Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeak 1990ko abenduaren 21ean onetsi zen. 1991ko maiatzaren 20an NAOn argitaratu ondoren sartu zen indarrean.

Indarreko HAPOa, Hirigintza Araubidea eta Lurzoruaren Balorazioa Aldatzeko uztailaren 25eko 8/1990 Legea onetsi eta gerokoa izanda ere, indarrak gabe gelditu zen aurreko Lurzoruari buruzko Legeari –hau da, 1976koari– egokitzen zaio.

Horri dagokionez, gogoratu behar da akats hori agerian jarri genuela azkeneko fiskalizazio txostenean, Burlatako Udalaren 1994ko ekitaldiari buruzkoan, eta geroztik ez dela konpondu.

Halaber, egun ez da adjudikazio prozesurik hasi indarreko arauetara ongi egokituko den beste plan bat egiteko.

VI.6.2. Azterlan ekonomiko-finantzarioak/Jarduketa Programak

Udalak ez du idatzizko jarraipenik egiten azterlan ekonomiko eta finantzarioei buruz, ez eta jarduketa programen betetzeari buruz ere.

VI.6.3. Planeamendua garatu eta betetzea

Burlatako planeamenduaren garapena eskasa izan da, Ganbara honek eginiko azken azterketatik begiratuta. Hala ere, ezin da zalantzan jarri ekimen pribatua dela hasiera batean planeamendua- ren betetzea bultzatzen duena.

Planeamenduaren aldaketei dagokienez, ondokoa azpimarratu behar dugu: 1994ko ekitalditik hona aldaketa puntual bakarra egin dela, hain zuzen ere “N-4” eta “N-17” unitateetan, eta instalazio jakin batzuk lekuz aldatzeko beharra suertatu delako gertatu da, erre egin baitziren. Aldaketa horren onspena 1998ko abenduaren 16ko 150 zk.ko NAOn argitaratu zen.

VI.6.4. Hirigintza-kontabilitateko betebeharrak

Udalak ez du lurzoruaren udal ondarea eratu, eta ondare horretatik lorturiko errekurtsioak ez

daude espreski atxikiak lurzoria kontserbatu, mantendu eta gehitzeari. Halaber, aurrekontuan ez da jarri lurzoruaren udal ondarean inbertitzeko behar den baliabideen ehuneko 5a.

Hala ere, Udalak “Eraiki gabeko orube eta lurzoruaren erregistroa” du egina, baina eguneratu gabe dago.

VI.6.5. Hirigintzaren kudeaketa

Udalak behar dituen langile teknikoak ditu hirigintza alorrerako; haiek dute beren gain hirigintza planeamenduaren kudeaketa eta izapidaketa teknikoa.

Azkenik, aurreko iruzkinak aztertutik, ondoko gomendioak egin nahi ditugu:

• *Lehentasuna ematea hirigintza arloan indarra duten legeei egokituriko udal plana egiteari.*

• *Oro har ezarritako hirigintza obligazioak bete- tzea.*

• *Azterlan ekonomiko-finantzarioen betetze- mailaren eta jarduketa-programen jarraipen ego- kia egitea.*

VI.7. “2000 EFEKTUARI” ETA EUROA SAR- TZEARI BURUZKO GOGOETAK

Udalak ongi dakizki milurtearen aldaketak (2000 efektua, zehazki) udal jarduerarako ekar ditzakeen arriskuak, bai eta euroa sartzeak izanen duen eragina ere.

Bi alderdi horiek aplikazio informatikoen horni- tzailearekin –ANIMSA– ari dira aztertzen. Horre- gatik, Udalak ez du uste arrisku horiek eragin han- dirik izan dezaketarik udal jardueran.

VII. ERAKUNDE AUTONOMOAK

VII.1. HILARION ESLAVA MUSIKA ESKOLA

“Hilarión Eslava Musika Eskola” Patronatu edo Erakunde Autonomoak Burlata eta Atarrabiako udalei ematen die zerbitzua; beraz, bi udal horiek daude ordezkaturik Zuzendaritza Batzarrean. Eskolak 73 milioi pezetako obligazioak eta 72 milioi pezetako aitorturiko eskubideak ditu 1998an; beraz, milioi bateko defizita ageri da. Ondoko koadroetan azaldu ditugu zenbateko horiek, jatorri ekonomikoaren arabera sailkatutik:

Dirusarrerak	(pezetak, milioika)	
	Aitorturiko eskubideak	Ehunekoa
Matrikulak eta jasoagiriak	21	29
Bestelako dirusarrerak	1	1
Nafarroako Gobernuaren dirulag.	18,3	25,5

Atarrabiako Udalaren dirulaguntza	10,4	14,5
Burlatako Udalaren dirulaguntza	21,3	30
Guztira	72	100
(pezetak, milioika)		
Gastuak	Aitorturiko obligazioak	Ehunekoak
Langileak	61	84
Inbertsioak	6	8
Funtzionamendua	5	7
Bestelako gastuak	1	1
Guztira	73	100

Ikusten denez, gastuaren egitura langileria gastuetan zentratuta dago, batez ere; logikoa da hori Eskolak ematen duen zerbitzua nolakoa den ikusita. Dirusarrerei dagokienez, Eskolak sorturiko baliabideek aurrekontuaren ehuneko 30 egiten dute; horrenbestez, kanpoko finantziarioa –dirulaguntzak– behar du Eskolak ehuneko gainerako 70 betetzeko, dela Nafarroako Gobernuaren bidez, dela Burlatako eta Atarrabiako udalen bidez.

Ikusi ahal izan dugu Patronatuko langile batzuek berariazko osagarriak jaso dituztela; Zuzendaritza Batzarrak onetsi ditu osagarri horiek eta Osoko Bilkurak, berriz, berretsi egin ditu. Osagarri horiek jasotzeko arrazoien artean, irakasleekin adostutako borondatezko lansariaren osagarria dago, bai eta laguntzaile administrariak jasotzen duen jarduera-osagarria ere, bere mailari dagozkien gorako eginkizunak betetzen dituelako.

Ondotik, kudeaketari buruzko hainbat gomen-dio zehaztuko ditugu, Eskolaren barne kontrolerako sistemak hobetzeko komenigarri jotzen ditugunak:

- *Obligazioak edo eskubideak berekin dakar-tzan egintza orok kontu-hartzailetzaren edo barne kontrolaren eskutik pasatu behar du.*
- *Aplikatzaren diren ekitaldia hasi aintzin onetsi behar dira aurrekontuak.*
- *Diruzaintza-gerakinari dagokionez, behar bezala dokumentatu behar dira kutzako zenbaketak eta bankuaren berdinkatzeak.*
- *Inbertsioei dagokienez, hertsiki bete behar dira kontratazio administratiboari buruzko arauak, batez ere kontratazio-espeditenteak egiteari eta obrak adjudikatzeako konkurrentzia-printzipioa aplikatzeari dagokienez.*
- *Azkenik, Udalak behar diren barne-prozedurak eta tresnak ezarri beharko ditu Musika Eskolak burutzen dituen jarduketan arrazoizkotasuna eta legezkeratasuna bermatzeko.*

VII.2. KIROLN UDAL PATRONATUA

Kirolen Udal Patronatuak 147 milioi pezetako aitorturiko eskubideak eta 152 milioi pezetako aitorturiko eskubideak ditu 1998an; beraz, 5 milioi pezetako superabita dago. Ondoko koadroetan zenbateko horiek azalduko ditugu, jatorri ekonomikoaren arabera sailkatuz:

(pezetak, milioika)		
Dirusarrerak	Aitorturiko eskubideak	Ehunekoak
Udal igerilekuetako kuotak	87	57
Bestelako dirusarrerak	10	7
Nafarroako Gobernuaren dirulag.	3	2
Burlatako Udalaren dirulaguntza	52	34
Guztira	152	100
(pezetak, milioika)		
Gastuak	Aitorturiko obligazioak	Ehunekoak
Langileak	72	49
Ondasunak eta zerbitzuak erostea	56	38
Transferentziak	15	10
Bestelako gastuak	4	3
Guztira	147	100

Ikusten denez, gastuaren egitura zerbitzuen funtzionamenduak berekin dakarren gastuetan oinarritzen da, batez ere. Dirusarrerei dagokienez, zentroak sorturiko baliabideek aurrekontuaren ehuneko 64 hartzen dute, horrenbestez, kanpoko finantziarioa –dirulaguntzak– behar du Eskolak ehuneko gainerako 36 betetzeko, dela Nafarroako Gobernuaren bidez, dela Udalaren beraren bidez.

Hala eta guztiz ere, aurreko datu ekonomikoak ez dira Patronatuak izan duen jardueraren agerpen erreala; izan ere, Udalak zuzenean hartzen ditu bere gain inbertsioei eta funtzionamenduari dagozkien gastu batzuk, aurreko VI. atalean adierazi den bezala.

Langileei dagokienez, hauxe da azpimarratzekoa: 1998an, aldizkako lan-kontratu finkoa zuen langile batekin zeuzkan kontratuak Patronatuak aldarazi zituen, eta langile finko arrunt bilakatu zuen, 1998rako Burlatako Udalerako Plantilla Organikoan Patronatuko lanpostuetan zeuden aurreikuspenei jarraituz. Gora jotzeko errekurtsoa jarri zen Plantilla Organiko hori onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkuraren aurka, hain zuzen ere aldizkako lan-kontratu finkoa zuen langilea langile finko arrunt bihurtzeagatik. 1999ko maiatzaren 28an, Nafarroako Administrazio

Epaitegiak errekurtsio hori ezesten zuen ebazpena eman zuen.

Patronatuaren jarduerak ondoko multzotan sailka daitezke:

a) Ikastetxe publikoek eginikoak eta ikastetxe publikoentzat eginikoak.

b) Burlatako kirol elkarteek eta bestelako talde batzuek –Patronatuaz independenteak diren unitateak– zuzendu eta Patronatuak instalazioak jartzen dituen kirol ekitaldietako jarduera federatuak eta federatu gabeak.

c) Patronatuak berak antolatutako jarduerak.

Azken horiek zerbitzuak errentan jartzeko enpresen bitartez egiten dira; kontratazio administratiboaren arauak betez adjudikatzen dira kontratuak.

Ondotik, Patronatuaren barne kontroleko sistematik hobetzeko komenigarri jotzen ditugun kudeaketa-gomendio batzuk zehaztuko ditugu:

- Aplikatzen diren ekitaldia hasi aintzin onetsi behar dira aurrekontuak.

- Udalak behar diren barne-prozedurak eta tresnak ezarri beharko ditu Musika Eskolak buru jartzen dituen jarduketan arrazoizkotasuna eta legezkoitasuna bermatzeko. Halaber, bi organismo horien jarduerak eta eskumenak argitzea eta zehaztea eskatzen dugu.

- Patronatuak ematen dituen dirulaguntzak kontrolatzeko berariazko prozedurak diseinatu eta aplikatzea.

VII.3. JAI ETA KULTURARAKO PATRONATUA

Jai eta Kulturarako Patronatuak 52 milioi pezetako aitorturiko obligazioak eta 54 milioi pezetako aitorturiko eskubideak ditu 1998an; beraz, 2 milioi pezetako superabita dago.

Ondoko koadroetan zenbateko horiek azalduko ditugu, jatorri ekonomikoaren arabera sailkatuz:

Dirusarrerak	Aitorturiko eskubideak (pezetak, milioika)	Ehunekoak
Arteen eta Lanbideen Eskola	1	2
Bestelako dirusarrerak	3	6
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	1	2
Burlatako Udalaren dirulaguntza	49	90
Guztira	54	100

Gastuak	Aitorturiko obligazioak (pezetak, milioika)	Ehunekoak
Funtzionamendua	43	83
Transferentziak	8	15
Inbertsioak	1	2
Guztira	52	100

Gastu nagusiak, funtsean, zerbitzuen funtzionamenduaren ondoriozkoak eta toki elkarteek antolaturiko kultur jardueretarako ekarpenak dira. Funtzionamendu gastuetan, herriko jaietakoak ere badaude: 16 milioi pezeta egiten dute.

Dirusarrerei dagokienez, Patronatuak sortutako baliabideak ez dira aski autonomia finantzarioko tarte bat izateko; izan ere, horietatik ehuneko 90 Udalaren beraren dirulaguntzen bitartez sortutakoak dira.

Kirolen Patronatuan bezala, aurrekontuei buruzko aurreko informazioak ez du behar bezala agertzen Burlatako Udalak kulturaren arloan eginko lana. Hain zuzen ere, Udalak bere gain hartzen ditu inbertsioei eta funtzionamenduari dagozkien hainbat gastu.

Langileri arloan eginiko azterketari dagokienez, zera egiaztatu ahal izan dugu: Patronatuko langile batek 1998ko zenbait hilabetez berariazko osagarri bat jaso duela, Zuzendaritza Batzarrak onetsita, bere mailaz gorakoko eginkizunak beteagatik. Bestalde, udaleko zenbait langilek Patronatuaren kargurako lansariak jasotzen dituzte jai patronaletan lan egindako aparteko orduengatik, eta ez da PFEZaren atxikipenik egin, ez eta Gizarte Segurantzaren kotizaziorik ere; izan ere, aipatu lansaria ez da langileen nominetan sartu.

Patronatuaren jarduerak honela laburbil daitezke:

a) Kultur prestakuntzako programak.

b) Zabalkunde kulturala edo kontzertuak, erakusketak eta abar.

c) Animazio/dinamizazio sozio-kulturala, edo Patronatuaren laguntza ekonomikoa hartzen duten taldeek edo kolektiboek egindako jarduerak.

d) Jai-zikloko egintzak/aktuzioak: jai patronalak, ihauteriak, eguberrietako programa e.a.

Arestian aipaturiko jarduerak burutzeko behar diren zerbitzuak erosi eta errentan hartzeari dagokienez, hauxe ikusi dugu: batzuetan ez da behar den adjudikazio-espeditentia egin; beste batzuetan, adjudikazio prozedurak kontratazio administratiboetan erabili behar diren konkurrentzia eta publikotasun printzipioak hausten ditu.

Ondotik, Patronatuaren barne kontroleko sistematik hobetzeko komenigarri diren kudeaketa-gomendio batzuk zehaztu ditugu. Kirolen Patronaturako aipaturiko gomendioak erabat dira aplikagarriak Kultur Patronaturako ere; beraz, ez ditugu errepikatuko, Kultur Patronatuak berezko dituenak baizik ez ditugu aipatuko:

- *Arau fiskala lansari mota guztiei aplikatzea.*
- *Hirugarrenetikiko edozein harreman kontratu bidez egin behar da, behin kotratazioari buruzko*


arauetan betekizunak bete ondoren. Horretarako, komenigarria da aldean obligazioen eta eskubideen multzoa bilduko duen kontratu normalizatu baten eredia izatea.

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko arauak ezarritako iza-pideak bete ondoren.

Iruñean, 1999ko urriaren 20an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. ERANSKINA. BURLATAKO UDALAREN ORGANIGRAMA, 1998KO PLANTILLA ORGANIKOAREN ARABERA



II. ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA

- Dirusarreraren betetze maila =
$$\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$
- Gastuen betetze maila =
$$\frac{\text{Aitorturiko obligazioak}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$
- Kobrantzen betetzea =
$$\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$
- Ordainketen betetzea =
$$\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$$
- Zorpetze maila =
$$\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$$
- Zorpetzearen muga =
$$\frac{\text{Dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$$
- Zorpetze ahalmena = Muga- zorpetze maila
- Aurrezki garbia =
$$\frac{\text{Dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$$
- Langileen indizea =
$$\frac{\text{Langileen aitorturiko obligazioak}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$$
- Inbertsio indizea =
$$\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$$
- Dirulaguntzekiko menpekotasuna =
$$\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$
- Dirusarreak biztanleko =
$$\frac{\text{Aitorturiko eskubideak}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Gastuak biztanleko =
$$\frac{\text{Aitorturiko obligazioak}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Gastu arruntak biztanleko =
$$\frac{\text{Aitorturiko obligazioak (1-4 kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Presio fiskala edo tributu bidezko dirusarrerak biztanleko =
$$\frac{\text{Tributu bidezko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$
- Finantza-zama biztanleko =
$$\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}} \times 100$$

